

# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

**Brad Mehldau, Cécile McLorin Salvant, Sílvia Pérez Cruz, Kenny Barron, Noa, Chucho Valdés, Jorge Pardo, Buika, Gonzalo Rubalcaba, Bill Frisell eta Marc Ribot, 56. Jazzaldiko kartel buruak**

**Jaialdia uztailaren 21etik 25era egingo da Donostian, eta 60 kontzertu eskainiko ditu 8 eszenategitan, tartean 29 doakoak**

**La Locomotora Negrak eta Chucho Valdésekin Donostiako Jazzaldia Sari bana jasoko dute**

**Jazzaldiak 18 kontzertu internetez zabalduko ditu zuzenean**

56. Jazzaldia Donostian egingo da uztailaren 21etik 25era 60 emanaldiko egitarau baten bidez; horietatik ia erdiak, zehazki 29, doakoak izango dira ikusleentzat, 8 oholtza desberdinetan: Trinitate Plaza Keler, Kutxabank Kursaal Auditorioa, FCC Victoria Eugenia Antzokia, Chillida Leku, Skôda San Telmo Museoa, Frigo Gunea, Guuk Gunea, Kutxa Kultur (Tabakalera). Aurten, lehen aldiz, Jazzaldia kerik gabeko jaialdia izango da.

Jazzaldian arituko diren lehen mailako musikarien artean, hauexek izango ditugu: Brad Mehldau, Cécile McLorin Salvant, Sílvia Pérez Cruz, Kenny Barron, Noa, Chucho Valdés, Jorge Pardo, Buika, Gonzalo

#### JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 900 [prensajazz@donostia.eus](mailto:prensajazz@donostia.eus)  
[www.jazzaldia.eus](http://www.jazzaldia.eus)



# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Rubalcaba, Bill Frisell eta Marc Ribot. Zerrenda hori osatzeko, ikusleek gutxiago ezagutuko dituzten artista bikain batzuk daude, hala nola Naïssam Jalal, Franco de Andrea, Marco Mezquida, Giovanni Guidi, Jean Toussaint Toissant, Éric Séva eta Marcin Masecki. 56. Jazzaldi honetako programazioan, nabarmentzekoak dira emakumezko ahots anitzak eta piano-joleek eskainitako kontzertuen kopuru handia.

Aurtengo Jazzaldian, VI. Jazzeñe egingo da, Espainiako jazz nazioartekotzea helburu duen ekimena. SGAE Fudnazioak antolatu du, Donostiako Udalaren, Donostia Kulturaren eta Donostiako Jazzaldiaren lankidetzaz, eta zortzi kontzertu egingo dira orotara, 45 minutuko showcase formatuaz, genero honetako egungo espainiar talde adierazgarrienetako batzuekin: Ariel Brínguez Quintet, Caminero Quintet, Chano Domínguez Trío, Daniel García Trío, Smack Dab, Sumrrá, Alba Careta Group eta Manolo y Curra.

Jaialdiak euskal jazzaren aldeko apustuari eutsi dio, eta bertako 23 banda eta bakarlari arituko dira Kursaaletako terrazetako kontzertuetan: Les Fous, Swingtronics, Dos, Horda, Sara Mansilla, De 2 en Blues Band, No More Jazz Brass Band, Sara Azurza...

Hurrek ere Jazz-a disfrutatu ahal izango dute, Txikijazz goizeko kontzertuei esker, talde hauexek eskainiak: Hollywood Band Kids, Swingtronics, Ghost Number eta Oreka TX. Kontzertuok, sarrerak librekoak edukiera bete arte, 12:00etan hasiko dira Guuk Gunean eta Kutxa Kulturaren (Tabakaleran).

## JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 900 [prensajazz@donostia.eus](mailto:prensajazz@donostia.eus)  
[www.jazzaldia.eus](http://www.jazzaldia.eus)



# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

## Donostiako Jazzaldia Saria

2021eko Donostiako Jazzaldia sariak jaialdiaren iraunaldian emango zaizkie Chucho Valdési eta La Locomotora Negrari. Dionisio Jesús Valdés Rodríguezek, Chucho Valdés ezizenaz ezagunagoak, Bebo haren aitak sari berdina irabazi eta hogeitaurtera jasoko du Donostiako Jazzaldia Saria; urte hartan, aitak eta semeak oholtza partekatu zuten 38. Jazzaldiko kontzertu gogoangarri batean.

La Locomotora Negra, bestalde, Jazz katalan eta espainiarreko talde beterranoenetako bat da. Bada, aurten, haien 50. urteurrenarekin bat etorritik, big band horrek deliberatu du oholtzara azken aldiz igotzea, eta Jazzaldiak aitortu eta eskertuko die egin duten ibilbidea, Donostiako Jazzaldia Saria emanaz.

Jazzaldiko sariaren zerrenda Jazzeko talentu nagusien multzo harrigarri bat da. Hauexek daude saria irabazi dutenen artean: Doc Cheatham, Hank Jones, Chick Corea, Kenny Barron, Ray Brown, Elvin Jones, Keith Jarrett, Herbie Hancock, Shirley Horn, Wayne Shorter, Toshiko Akiyoshi eta Ellis Marsalis.

## 18 kontzertu streaming bidez

Donostiako Jazzaldiak zuzenean zabalduko du streamingez 18 artistaren kontzertuak, doako sarbidea emanaz. Trinitate Plaza Kelerko 9 kontzertu segitu ahal izango dira era horretan, baita FCC Victoria Eugenia Antzokian egiten diren guztiak ere; bertan egingo da, hain zuzen, VII. JazzEña. Streaming hori gure web orrian, gure APParen bidez eta gure Youtube kanalaren bidez jarriko da eskueran.

### JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 900 [prensajazz@donostia.eus](mailto:prensajazz@donostia.eus)  
[www.jazzaldia.eus](http://www.jazzaldia.eus)



# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

[Prensa informazio guztia hemen daukazu.](#)

**JAZZALDIA**

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 [prensajazz@donostia.eus](mailto:prensajazz@donostia.eus)

[www.jazzaldia.eus](http://www.jazzaldia.eus)

